



Manuel Arruti.

Manuel Arruti gogoan (Arkaitza tabernakoa)

Julian Albistur Aramburu
(Xenpelar Bertso Eskola)

Maiatzaren 9an berri txar bat jaso genuen: Arkaitzako Manuel Arrutik utzi gintuela. Azken urteotan mugatuta bazegoen ere, ezustean joan zen, 86 urterekin. Manuel Arruti Lertxundi, Orioko San Martin ermita inguruko Andu baserrian jaio eta bertan bizi izan zen, Iñaxi Peñarekin ezkondu zen arte; Orioko San Martin ingurukoa, hau ere, Itzaiz baserrian jaioa. Ezkonduz geroztik euren jaioterrian, kalean bizi izan ziren. Bost seme-alaba izan zituzten: Patxi, Mari Koro, Mari Lourdes, Jone eta Amaia.

Zerrategi bat zeukatenez senideen artean, Manuelek bertan arotz lanean jardun zuen, baina 1973an hasi eta urte batzuk iraun zuen "petrolioaren krisia" deituriko krisi latzaren ondorioz, uztea erabaki zuten arte. 1977an, Erreterriako Arkaitza taberna hartu zuten Manuelek eta Iñaxik, eta hemen bizi izan ziren euren seme-alabekin. Erretiroa hartuz geroztik Hondarribian bizi baziren ere, Manuel ia egunero azaltzen zen Arkaitzara.

Orio bezalako giro euskalduneko herri txiki batetik Erreterria hirira etorri zen, non erdal giroa zen nagusi. Manuelek, hala ere, bere familiarekin batera, euskal kutsua eman zion Arkaitza tabernari. Baserritarra izaki, euskal girokoa, lagunartean tratu errazeko gizona, euskaltzale sutsua eta bertsozale amorratua, euskara zuen bere bizitzaren ardatza eta oinarri sendoa.

Arkaitza taberna, herriko eta inguruko baserriarren, euskaltzaleen eta bertsozaleen txoko paregabea bihurtu zuen, non lagunarteko giroan, solasaldian eta bertsoan aritzea ohiko bihurtu zen.

Horrela, giro horretan, hemen hasi zen bertsoan bat-batean, modu apalean bederen, gero bertso idazteari ere ekin ziolarik. Lagunarteko bertsolaria, plaza girokoa ez izan arren, bertsoa odolean zeraman.

Herriko beste bertsozaleekin nahiz bertsolariekin, Xamalbide tartean, bertsoan aritzea gustatzen zitzaion. Joxe Joakin Mitxelena oiartzuarrekin ere aritzen zen tarteka. Azken 35 urteotan auskalo zenbat bertso-saio egin diren Arkaitza tabernan, herri mailako bertsolaritza landuz gehienetan, gozatzeko helburu bakarrarekin. Manuel berak aitortzen zuenez, gustura bizi izan zen Erreterrian.



Arkaitza tabernari egindako omenaldia, 2000ko Santo Tomas egunean.

Xenpelar Bertso Eskolak, 2000ko Santo Tomas egunean omenaldi xume bat eskaini zion Arkaitza tabernari, bertsolaritzaren alde egindako lanagatik. Urte asko igaro dira geroztik. Orain, Xenpelar Bertso Eskolaren 25. urteurreneko ospakizunen atarian aurkitzen garen honetan, utzi egin gaitu.

Gure oroimenean izango dugu beti. Mila esker Manuel, bihotz-bihotzez, emandako guztia-gatik. Ez adiorik, gero arte baizik.



Aitor Sarriegi kantari Arkaitzan, 2006an.



X. Amuriza eta A. Ibaibarriaga, entzule kualifikatuak adi, Arkaitzan 2006an.



Arkaitzako bertso-saio batean entzuleak adi.

Doinua: “Aita izena kanta beharrak”

1

Orain hogeita hamabost urte
hain erabaki larria:
Errenterira etorri zinen
utzita jaioterra.
Etxea eta lana aldatuz
dena zenuen berria;
emazte eta seme-alaben
laguntza izugarria.
Garai bateko bertso giroa
berpiztera etorria.

2

Maitate zenuen euskara eta
maitatuz bertsolaritza,
seme-alabei ere txertatuz
eman zenuen bizitza.
Arkaitza ildo beretik doa,
emango nizuke hitza:
Jone, Amaia, bertso-saioak
antolatzen baitabiltza,
etorkizuna ziurtatzeko
euren esku dago giltza.

3

Baserritarra jaiotzaz eta
euskaltzale atsegina,
bertsolaritza idatziz landuz
bat-batekoa adina,
hamaika aldiz lagunarteko
bertso-saioak egina;
bertsozaleok eskertzen dugu
egindako ahalegina,
baina zu gabe ez da izango
Arkaitza lehen zen berdina.

4

Zuk lortutako giro epela
ez da ordea galduko,
jende gehiena itzultzen baita
behin ezagutu orduko.
Euskal giroa arnasten dela
ez du inork ukatuko:
utzarri bat hor zintzilik eta
Txirrita bera lekuko,
baina Manuel bertsolaria
ez dugu erraz ahaztuko.